

Nord Stream



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Pablo Iglesiasek, Inna Afinogenovak eta beste batzuek aski argi esan dute estatubatuarrak –edo haien aliatuaren bat– direla Nord Stream gasbidearen suntsiketaren arduradunak. Afinogenovak bi argudio nagusi ematen ditu “erruduna Errusia dela defenditzen duten analisten” aurka: lehena, Errusiak segitu nahi badu Europari txantajea egiten gasarekin, gasbidea martxa onean behar duela, txorrotta irekitzen eta ixten segitu ahal izateko. Bigarrena, Errusia Ukrainiako gerran gero eta okerragoa badabil gaitasun militarren faltaz, nola eduki lezake gaitasunik halako operazio bat egiteko NATOk erabat kontrolatzen duen Baltiko itsasoan?

Nik, apal-apal, hirugarren argudio bat gehituko nuke: gasbidea suntsitzeari buruz gure eskuetara iritsi ohi den prentsak –euskal prentsak ere barne– hartu duen jarrera: gasbidea suntsitzeari buruz, berri laburrak, analisirik apenas, egiletzari buruzko zalantzak... eta, aldiz, Errusiak anexionatu dituen lurraldeen arazoa fokupera ekartzea –berri luzeak, analisi aberatsak, baieztapen biribilak–.

Iglesiasek, bere aldetik, CIAko aholkularia izan zen Jim Rickards delako

Desastre ekologiko bat; non ez gaituzten konbentzitzen gerra ekologikoa dela edo izan daitekeela, nuklearra berdea dela konbentzitu nahi gaituzten moduan

batek Twitterren idatzitakoa aipatzen zuen: “Ez dakit nork suntsitu dituen gasbideak, baina badakit misterio baten erantzuna aurkitzeko motibazioak bilatu behar direla. Errusiak ez dauka bakar bat ere, gasaren jarioa nahi duenean mozten ahal duelako. AEBk asko dauzka: Putini errua botatzea, gerra areagotzea, Europar Batasuna AEBen mendeko bihurtzea...”.

Diotenez, gasbidetik isuriko den gasak ez du itsasoa kutsatuko –gasa ur sakonetik ur azalera igo eta handik at-

mosferara igaroko delako– baina atmosferan eragingo duen efektua, aldiz, 7,5 milioi tona CO2 isurtzea bezalakoa izango da. Alderaketa hau egiten dute: Espainiako estatuan urtebetez zirkulatzen duten ibilgailu guztiek isurtzen duten CO2 guztia da hori. Desastre ekologiko bat; non ez gaituzten konbentzitzen gerra ekologikoa dela edo izan daitekeela, nuklearra berdea dela konbentzitu nahi gaituzten moduan.

Etsita nago ez naizela sekula ezer ulertzero iritsiko, eta gerraren lehen biktima egia dela; badakit albiste mota hauetan ez dagoela inorekin fio izaterik. Urteek mesfidatia izatera eraman naute, eta bertsio ofiziala ez dut ia inoiz sinesten. Horretaraino, ezer berririk ez. Niretzat berria dena da bertsio ofiziala ezbaian jartzen duen bertsio alternatibo eta sinesgarriak aurkitzeko, eta kontraste horretatik interpretazio “propio” bat lantzeko dauden zailtasunak. Beti dago engainatua izateko arriskua, baina hori bezain kaltegarria da ofizialismoaren ahotsari kasu egitea, horrek ergelkeria- ren atarian uzten baitzaitu.

Kazetaritza ere gerran dago. Gerran segitzen du. ●



“Antzinako gari barietate ekologikoak erabiliz, gure ogia goxoagoa da eta ingurumena errespetatzen du.”

LEIRE BEORLEGI
Okina, IRUNBERRI

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!

cpaen.org
navarraecologica.org

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIA

ALIMENTOS ECOLÓGICOS
eko-
logikoak
para vivir mejor
DE NAVARRA